

Dimetalerako sarrerak salgai Dimako Baltzola tabernan eta Bilbon

13. orrialdea

Zahartze feminista berbagai

Carmen de la Mata Cordobako Unibertsitateko irakasleak, bakarrik bizi diranen edadeko andren gaineko ikerketak egin ditu. Areatzan izango da hilaren 27an, bere ikerketen ondorioen barri emon eta feminismoak zahartze prozesuan eskaintzen dituan tresnen gainean berba egiteko. Ilgoran Arratiako Andren Jabekuntza Eskoleak antolatu dau Morea eta Grisa ardatzaren barruan. **12. orrialdea**



Zeberioko Andoni Cintado Espainiako txapeldun Taekwondoan

11. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

334

2020ko zezeilaren 17a
hamabostekaria
www.begitu.org

Itziar Zabala, harrian zentrauta

Itziar Zabala eskalatazailerik dimoztarra Espainia mailako eskalatazailerik onenetakoa da. Hainbat bider irabazi ditu Euskal Herriko, Espainiako Txapelketa eta Kopa, baina lesino bat izan eban eta

ez dau aukerarik eukiko Joko Olinpikoetan egoteko. BEGITU beragaz egon da berbaz eta eskaladan eta bizitzan bizi izandakoak eta dituan proiektuen barri emon deitso. **8. eta 9. orrialdeak**



Mozorro desfileak eta ogi tostadak Aratusteak ospatuteko



Zezeilaren 21eko astegiaren zein astelehen eta martitzen karnabal egunetan, desfileak, mozerro lehiaketak eta ogi tostada janak egongo dira, besteak beste, Aratusteetako jai herriko eta kolo-

retsuetan. Jai giroa nabaritu da kaleetan eta umorea eta irudimena ez dira faltako. Udalak eta alkarteak hainbat ekintza antolatu ditue, baina herritarren sormena izango da jaietako osagairik garrantzitsuen. **5. orrialdea**

AREATZA

Gure Esku Dagok Areatzako Elkargunea aurkeztu dau

Erreferendum legal bat lortzeako helburuagaz, Gure Esku Dagok herri ekimen bat ipini dau martxan. Lehenengo pausua sinadura bilketea izango da.

Horretarako herrietan Elkarguneak sortuko dira. Areatzan, zezeilaren 7an egindako batzarrean sortu zan Areatzako Elkargunea, erabakitze eskubidea gauzatzeko egin gura daben erreferendumerako prozesua abiatzeko. **6. orrialdea**



BEDIA

Bediako baserriak liburu baten jaso ditu Labayruk Udalaren enkarguz

Bediako baserriak monografikoan herriko 74 baserri jasoten dira: baserri bakoaren fitxa eta argazkia dagoz. Bertan, gaur egun eraikina daukien baserriak zerrendatu dira. Euskera Planaren barruan, ondarea landuteko igazko lana da monografia hau eta etxe guztietara banandu dau Udalak.

Liburua, Labayruko langile eta Bediako zinegotzia dan Igone Etxebarriak idatzi dau. **6. orrialdea**



DIMA

Igor Zuazoren txorizoak bigarren Euskadiko Txorizo Sariketan

San Antontxu hurrengo egunean, urtailaren 18an, izaten da Mungian lehiaketa. Igor Zuazo Dimako harakinak, igazko txapel-dunak, bigarren egin dau aurten Euskadiko txapelketa honetan. Ordiziako Euskal Herriko Txistorra Txapelketan be laugarren egin eban igaz. Arratiako ganaduagaz harategiko lantegian egindako txorizoa, txistorra eta odolosteaz gainera, tripakailuak, sahieski ondua, solomoak, hamburgesa klase asko eta saltxitak saltzean dauz amamak itxitako dendan. Urteotan, gizartea eta konsumoa asko aldatu dirala dino eta produktu freskoetan espezializau da Zuazo. **7. orrialdea**

Literatura txokoa

IZKIRIATURIK AURKITU DITUDAN ENE POEMAK

Oingoan aurkezten deusuedan liburua ez da liburu barria, joan dan gizaldikoa da. Ez da arratsalde baten, edo astebete baten irakurtekoa, bizialdi osoan irakurtekoa baino. Ez da gozatzeko nobela bat, ez dira imajinarioak biztuten deuskuen narrazioak. Bizitza atalak dira, sentimentuak, minak... munduan zeharreko eta hainbat kulturatako gizakiak idatzia.

Joseba Sarrionandiak egindako bildumea da. Antza danez, gustuko ebazan poemak euskertzen hasi zan; hitzaurrean Sarrionandiak berak dinoan moduan: "Edozein bilduma, azken finean, biltzailearen garai bateko maitasun eta manien museoa da". Bilduma honetan maitasun eta

manien museo zoragarria eratu dau, eta itzulpena be ezin hobea da, gatxa da-eta poemak itzultzea eta barruan daukien sentimentua be ondo transmitidutea.

Sortu dauan museo hori literatura unibersaleko arte lanen bildumea da, izan be. Egunaren edozein sasoitan, bizitzaren edozein ordutan zabaldu geinke bilduma hori; edozein orrialdetatik, bertan agertzen diran egileen arteko edozeinen edozein lerrotatik, eta maisulan bat izango dogu begien aurrean. Europako, Afrikako, Ameriketako eta Asiako gizakien sentimentu sakon bezain bortitzak topauko doguz bertan; niri neuri barrenak astinduten deustiezanak, guzti-guztiak be. Horren lagin bat joatzue

hemen, ea akuilua dan liburua irakurri dagizuen.

ORDUAN EZ NEKIEN ZENBAT
Orduan ez nekien zenbat galdu genuen.
Ene zahartzaro honetatik begiratzean
andere eta ume hilen imajinak datozkit
gogora,
pilatu eta barreiatu troketan.
Oraindik ere izugarria da enetzat.
Eta oharzen naiz, lokatz odoleztatu ha-
retan
beste zerbait ere hil zela, gero
ekaitzek estali zuten gauza bat:
Herri baten ametsa amaitu zen han.
Nazioaren zirkulua hautsi da,
eta lurreen galdu dira zatiak.
Iadanik ez dago hazirik batere
eta hil eginen da gure arbola sakratua.

(Black Elk)

Rafa Ugalde

Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak

Joseba Sarrionandia

Pamiela argitaletxea, 1985

286 orrialde



TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Zezeilaren 17tik 23ra

Rodriguez Martinez, Igorre, Agirre Lehendakaria 27

Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano, Amorebieta-Etxano.

Zezeilaren 24tik martiaren 1era

Traver, Bedia, J.A. Agirrerren enparantza z/g

Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya, Amorebieta-Etxano.

Martiaren 2tik 8ra

Badiola, Artea, Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048

22:00etatik 09:00etara

Melero, Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Gometza Ana, Francisco Kortabarria 2, Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 38 50 14

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren 94 433 33 33

Areatzako Notarioratza

94 673 92 26

Bizkaibus 94 612 55 55

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00,

16:00.

* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ermitabarri-Arrigorriaga

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriaga-Ermitabarri

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

Babesleak:



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Irati Urien.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Leire Inuntziaga eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Iker Perez eta Eguzkiñe Zuluaga (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).

Tiradea: 7.300 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com


BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Okotz



Arpegian, ahoaren eta beheko ezpanaren azpiko aldean gizakiak daukan hazurrari okotz esaten jako (okótza, ahoskatuta). Batuan, kokots da. Hona hemen adibide hau: "Baegoan gure auzoan gizon bat sekulako okotz-motza eukana". Arratia inguruan, bestalde, okotz berbeagaz lotuta "okotzeraino beteta egon" esamoldea be erabilten da, zera adierazoteko: Baten bategaz gogaituta edo kantsauta parau, persona hori astun hutsa dalako.

ERETXIA

Zabortegeien inguruan bueltaka

Behin eta barriro errepikatzen deusta lagunak tamalgarriaz gain sinbolikoa be badala persona bi zaborrak zapalduta geratzea Zaldibarko zabortegeian. Baietz dinotsat eta kontuan hartzeako zenbat zabor sortzean dogun eta horrek dakarren ondorioa: nonon sartu beharra zabor hori. Iragarkietan agertzen ez dan konsumismoaren beste arpegia dala. *Neurribakokeria da jainkoak deseuztatu gura daben personari bidaltzen deutsen lehenengo gaitza.* (Teognis de Megara).

Behin eta barriro errepikatzen deusta lagunak informazioa beharrezkoa dala eta senitartekoai eta ingurukoai jakinarazo egin behar jakiezala erreskatearen nondik norakoak eta zabortegearen arriskuak. Baietz dinotsat eta kontuan hartzeako gure demokrazia honetako politikoen joera dala ahalik eta informaziorik gitxien emotea eta arazoak estaltzea, batez be ekimen eta enpresa pribaduai jagokiezan kontuetan. *Emozinoai muzin edo entzungor egin zein emozinoak gitxiestea da politika teknokratikoaren lehenengo akatsa... Modua funtsa da.* (Antoni Gutierrez-Rubi).

Behin eta barriro errepikatzen deusta lagunak bera ez dala katastrofistea, datuak emoten dituala, diruak egin dituala norbaitek zabortege horregaz eta bizitea merezidu daben bizitzak gura badoguz guztiontzat, ezinezkoa dala eredu horri aurrez aurre begiratu eta ezer egin barik jarraitutea. Baietz dinotsat eta kontuan hartzeako ekonomia ezingo dala muga barik hazi muga fisikoak ditualako eta gizaki guztiak hobeto biziteko bidea aberastasunaren banaketa erradikala dala. *Gauza bera dira pobreziaaren kontra burruka egitea eta gehiegizko aberastasunaren kontra burruka egitea.* (Yayo Herrero).

Behin eta barriro errepika-



MAITE ARTABE URKIRI

Zerbitzu Publikoetako langilea

tzen deusta lagunak badaukiela agintariak erantzukizuna honetan baina norbanakoarena be hortxe dagoala eta askok ez dabela keinurik txikiena be egiten; bizitza emongo ei leukie seme-alabakaitik baina ez dabe zirkinik egin gura eurei Lur bizigarria ixteko. Baietz dinotsat eta kontuan hartzeako ez gagozala prest gure erosotasunari apur-apur bat be kentzeako, horrek zoriontsu egingo gaitualakoan; mentalidade burgesaren erosotasunak jota gagozala eta kontzientzia ekologistea baino errotuago dogula hori. *Errazagoa da jentea engainatzea, engainatuak izan dirala euren buruetan sartzea baino.* (Mark Twain).

Behin eta barriro errepikatzen deusta lagunak Recycling deitzean dala enpresea, ironikoa be badala izena baina, dana dala, garrantzitsuena ez dala erreziklatzea, zaborrik ez sortzea baino. Baietz dinotsat eta kontuan hartzeako nozonoaz egin beharko dogula bidea bizimodu xumerantza, dekrezimentu zoriontsuaren teoriak dinoan eran. *Dekrezimentu zoriontsuak proposatzen dau personak lan gitxiago egitea, gitxiago konsumidutea, gitxiago lehizatzea, gitxiago kutsatzea, gitxiago metatzea eta holan zoriontsuago izatea.* (Julio García Camarero).

Behin eta barriro errepikatzen deusta lagunak kontua ez dala txarto bizitea, asezin konsumistea dala zorion faltearen iturri nagusietako bat gurean. Baietz dinotsat eta kontuan hartzeako marketing-ak asko daukala erlijino konsumistatik eta sasibeharrienen gorazarre eta apologia egiten dauala. *Norberak aukeratu behar dau austeridatea eta ez dau zerikusirik inposatutako miseriaz.* (Julio García Camarero).

Behin eta barriro aitutzen doguz sistemearen deabrukeriak eta ekologismoaren beharriana baina adi, lagun, guk kontuan hartzean dogu-eta Jorge Riechmann-ek esana: *Sistemeak huts egitea, besterik ezin dogu espero. Baina esperantza hori arroka bezain sendoa da: ze sistemeak huts egingo dau.*

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...

...BAGARA ETA IZANGO GARA

Endaketa Batzua

MONDRAGON

LUMATUTEN



XABIER LAMIKIZ

Nortasunak eta eskubideak

Gizatalde nortasunak azaleratzen ez ezik sendotzen dabiz garai globalizau honetan, eta nortasunok politikan eragin zuzena daukie. Ingeleraz *identity politics* deitzen deusie fenomeno horri. Egungo mundu garatuan (demokrazia liberaletan) jentek bere errazeari, erlijioari, etniari, sexuari, nazionalidadari, kultureari edo bestelako identitate partikularri jagokiazan kezka lehenesten ditu (doguz). Badirudi jada ez dagoala langile klaserik ezta burgesiarik. Horreek iragan mendeko kategoriak dirala dinoanik be ez da falta. Antza danez, gizartea talde identitate gainjarrietan dago bananduta, oin inoz baino gehiago. Barrero dinot, bananduta. Gizatalde batzuk euren ki-deentzako aukera bardintasuna eskatzen dabe; beste batzuk errespetatuak izan gura dabe;

eta oindino beste batzuk euren nazino/erlijino identidadari kalte egiten jabilkola sentidu eta prest dagoz egoera horri aurre egiteko. Jakina, gizataldeon arteko aldeak nabarmenak dira. Ez da bardina LGTB multzoko personak eskatzen dabena, edo sexu bereko personen ezkontzak deabruaren obra dala uste dabenen jarkerea. Ez da bardina andren eskubideak defendidutea edo genero indarkeriaren legearen aurka egotea. Ha-ta guzti be, gizatalde horreek guztiak gauza bat daukie komunean: taldearen eskubideak edota balioak urratuta ikusten ditue, eta urratzailea aldameneko taldea da.

Bide horrek ez daroa leku eder batera. Hurrengo urteetan talde gehiago azaleratuko dira eta eskubide urratu gehiagoren barri izango dogu. Nik iragarpen bat bota gura dot: animalien eskubideak dira hurrengo. Zezenketen inguruko eztabaida hasikera besterik ez da izan. Egunero munduan 200 miloe animalia hiltzen doguz, gehienak nahikoa modu itsusian hil be. 72.000 miloe animalia urtean. Norbaiteri burura genozidio berbea etorriko jako. Genozidioa da. Ha-ta guzti be, nik okelea jaten jarraitzeko asmoa daukat. Itxiko deuste?

ZERTZEAN



MAITE ARRIZABALAGA

Zeruak kopetilun begiratu du baina berak ez du ulertzen badator ekaitza eta bera beldur da burrunbada, hotza, zurrunbiloa zorigaitzaren aurreko isilunea, labanaren ahoa bezain zorrotza jasangaitza eta bera biluzik dago.

Astindu ditu azoteak kolpe bat eta beste bat bortiz azal txatalak erauziz zartako bakoitzean eta bera babesgabe zigorraren besoetan preso alde batera eta bestera leku guztietara eta inora eta bera balduta dago haizealdiak erotik ateratzeaz txistuak izoztu egin du sustraiak kolokan jari dizkio eta berak ez daki zelan aurre egin.

Zainetatik bizitza dario

Biluzik, goibel indar gabe eta bakarrik erortzeko zorian baina zainetatik bizitza dario berak ahaztua duen arren.

Zeruak baretuko du errieta eta eramango ditu hotzak, burrunbadak azoteak eta zigorrak eta berak ezetz dio baina hostoak erdituko ditu kolorea amastuko du bakea osotuz sustraiak osatuz.

Orduan eguzkiak zuzen begiratuko du eta berriro ere, ez du ezer ulertuko oldartuko du suzko korda luzeekin hostoak banan banan kiskaliz zainak ihartu arte eta bera berriro ere biluzik isiluneaz blai eginda bakarrik geldi, idor ez hara, ez hona ezin irten eta berriro ere babesgabe azala errautsa bailitzan egarriak mehatxaturik sustraiak mehe eta berriro ere balduta.

Baina oraindik zainetatik bizitza dario egarri da goibel dago zimel, biluzik eta balduta baina berriro ere zainetatik bizitza dario eta oraingoan ere ahaztu egin du baina eguzkiak freskatuko du beroaldia aldenduko da eta hostoak jaioko dira eta berriro ere sustraiak sendatuko dira.

Zeruak kopetilun begiratu eguzkiak zuzen begiratu edo biak konplize izan arren zainetatik bizitza dario eta bizitza bizitza erne da eta berak sustraiak lurrera lotuak ditu sakon ondo korapilatuak eta agian ulertuko du zeruak kopetilun begiratzean euria dakarrela eta ikasiko du harekin egarria ase eta beroa freskatzen eta agian ohartuko da zeruak zuzen begiratzean igorritako argiaz eta behar bada lortuko du haren beroaz hotza epeltzen haren suaz bizitza argitzen bizitzak bizitza erne baitu eta zainetatik bizitza dariolako.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eredian ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

“Sasoian saiokoa izan, gorputz eta gorpu, besterik ez” dino Rafa Ugaldek *Hondar aleak* liburuko poema baten. Jakinduriak betetako desira edo-eta desira eza iruditzen jata lerro hori. Izan be, bizitza eta gorputza ez dira betiko eta euren izate horretan be aldatuten dira. Uste baino lotuago dagoz izakerea eta egoerea. Batzuetan, norberak eta modu konszientean egindako aldaketak izaten dira, baina beste askotan denporeak berak eragindakoak. Eta momentu bakotxean, toketan dana biziten jakitea, jakinduriarik handiena dala iruditzen jata. Sasoi baten horri dotorezia esaten jakon.

Loran dagoz mimosak. Sasoian sasoikoa, zezeilean loratzen dira eta. Negurik egin ez dauan arren, lora sasoian loratzen dira. *Gorputz*. Helduko da momentu bat be, lurrean etzanda, lurrerako ongarri izango dirala. *Gorpu*.

Baina oin loratzen dagoz. Sasoian sasoikoa. Besterik ez.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarribia

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalejatu Zirkulu 101
R.P.S. 21/06

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK

MOKETA · SINTASOLA · PAPEREA

Elizalde, 33 D - 1º · 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 631 54 82 · 506 664 018

Agurrik
guztik
osatu!

Troka

Lanbideari Agur!!

ARRATIA

Igorreko mozorro desfilean kuadrillak musikea eta ikuskizuna eskainiko dabe

Zapatuan, zezeilak 22, arrastiko 17:00etan izango da Igorren Aratusteetako mozorro desfilea. Aurten, lehiaketan parte hartu ahal izateko derrigorrezkoa izango da ikuskizuna egitea edo, behintzat, musikeagaz egitea desfilea.



Erredakzinoa

Mozorroak dana dala, askoz lehenagotik hartuko dabez Igorreko kaleak; izan be 12:00etan emongo jako hasikerea eguneko egitarauari, Ezkiña tabernatik hasiko dan mozorro poteoagaz.

Zezeilaren 21 eta 22an ospatuko dira Aratusteak Arratiako herri gehienetan. Bedian barriz, Martitzen Karnabala ospatuteko tradizioa mantenduten dabe; aurten hilaren 25ean. Egun horreetan, kolorez eta mozorroz beteko dira kaleak eta desfileak, eskoletako mozorro jaiak, bazkariak eta mu-

sika emonaldiak hartuko dabe protagonismoa. Kultura eta kirol emonaldi askotan, mozorrotuta joatera konbidatzen ditue antolatzaileak.

Igorre, Lemoa, Dima eta Areatza

Sasoi baten Aratusteak gehiegikerietako egunak baziran be, gaur egun umeak izaten dira protagonista nagusiak neguko jai honeetan. Dana dala, Igorren nagusientzako jaiak be bada eta Arantzazun, Lemoan eta Diman, nagusientzako ekitaldiak be bada goz egitarauan.

Igorren, zapatuan, jaiak

12:00etan hasiko da mozorro poteoagaz. Herri bazkaria egongo da ondoren, Arratiko Zekorrek Rugby Elkartek antolatuta, eta 17:00etan, mozorro desfilea. Bertan kuadrillak, familiak eta norbanakoak hartuko dabe parte eta mozorrorik onenak saria izango dau. Aurten, desfilean parte hartzean dabenak ikuskizuna egin beharko dabe edo, behintzat, musikeagaz desfilau. Arrastiko 18:30ean, Jokaldi taldeagaz erromeria egongo da eta bitartean mozorroren sari banaketea egingo dabe.

Bezperan, umeentzako jaialdia antolatu dau Guraso Elkartek. Arrastiko 17:00etatik aurrera, zirku tailerra, Munduan berbenea, txololatea eta umeentzako tailerrak egongo dira Zaztaparrak taldearen eskutik.

Lemoan, gurasoak eta umeak, Eguen Lodian hasiko dira jaiak ospatuten, 10:00etan eskolan, txixi-burruntziagaz. Zapatuan, 19:30etik aurrera poteo musikala egongo da Kresala tabernatik hasita. Hurrengo egun bietan barriz, umeentzako jaiak egongo dira; barikuan JB Eguzkitza Meabe ikastetxeak antolatuta eta zapatuan, Udalak antolatuta.

Goizean izango da eskolako mozorro festa, 11:30ean, kirolde-

gian, Euskal Aratusteak gaia hartuta. Lehenago, 10:00etan gurasoak prestatutako txokolatea jateko aukerea izango da. Hurrengo eguneko jaiak, 17:00etan hasiko da kiroldegian. Puzgarriak, photocall-a, txokolatea, musikea eta jantzea ez dira faltauko.

Diman, egun biko egitaraua prestatu dabe; zezeilaren 21ean, barikuan eta hurrengo asteko zapatuan, hilak 29, ospatuko ditue neguko jaiak. Hilaren 21ean, arrastiko 16:30ean hasiko da jaiak, edade guztietako jentearantz tailer parte-hartzaileagaz. Ondoren, 18:30ean, karaokea, playback-a eta Joxe Mendizabaleagaz erromeria egongo dira. Musikeaz gainera, jaiak be beharrezkoa izaten danek ospakizunetan, txokolatea eta jentearoandako tostadak egongo dira. Hilaren 29an, barriz, kontzertuak eta musika ikuskizunak egongo dira: 19:00etan, batucAKKB ibiliko da tabernetatik; 21:00etan, Suger taldeak kontzertua joko dau Herriko Tabernan; 22:30ean, Lion Heart Baltzolan izango da, eta 00:30ean, Cabaret Abaroa aretoan.

Areatzan, zezeilaren 22an, AKKB Areatzako Kultur eta Kirol Batzordearen eguna be ospatuten dabe. Egun horretan, 09:00etan, Lamino Kirol Klubak Upo inguruetatik hiru ordu inguruko mendi ibilaldia antolatu dau. Ondoren, mozorroak soinean, 15:00etan, babajana egingo dabe hotelean eta bazkalostean, 17:00etan, triki-poteoari ekingo deusie, hoteletik hasi eta herriko taberna guztietatik

zehir. Bazkarirako txartela, hilaren 17an erosi ahal izango da arrastiko 18:30etik 19:30era udaletxean.

Arantzazu, Artea, Zeanuri eta Zeberio

Astelehenean, hilak 24, egingo dabe mozorro desfilea Arantzazun. 17:30ean urtengo da desfilea, herri kalejireka egiteko eta 18:00etan, Ogi Tostada Lehiaketea eta txokolate jana egingo dabe plazan; euria egin ezker, Kulturgunean.

Artean, barikuan, 15:15ean, egingo dabe Inauteri ekitaldia eskolan, eta 19:00etan, disko festa Kultur Etxean. Astelehen eta martitzen karnabal egunetan, hilak 24 eta 25, ludotekan be ospatuko ditue Inauteriak.

Zeanurin, zapatuan Antxo eta Pantxa pailazoak egongo dira arrastiko 18:00etan, umeak barre eragiten. Lehenago, 17:00etan, arpegiak pintetako tailerra izango dabe eskoleak antolatutako bazkalostean.

Zeberion, barikuan, hilak 21, 17:00etan, Xaiborrek umeentzako disko festa egingo dau frontoi ondoko aterpean. Gero, 18:30ean txokolatea egongo da hurreratu-takoentzat eta 19:00etan, mozorro lehiaketea.

Bedian Martitzen Karnabal

Bedian Martitzen Karnabalean ospatzeko ohitura mantentzen dabe astegoienera pasau barik. Egunko ekitaldi nagusia, mozorro desfilea herrian 17:30ean hasiko da. Aurretik izena emon eta argazkiak aterateko lekua egongo da 17:00etatik aurrera frontoian. Desfilearen ostean, barriri be frontoian, disko festa egingo dabe Sorgintxo DJ-agaz. Txokolatea be egongo da.

Bezperan, Aratusteak lotutako tailerrak egongo dira ludotekan.

ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

Basoak garbitzeko makineria

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKURIA ETA SALMENTA

ARANTZAZU

Arantzazuko mendizale bat hil da Asturiasen

Erredakzioa

Arantzazuko 66 urteko gizon bat hil egin zan zezeilaren 15ean, Cabralesgo (Asturias) Tesorero mendian, 300 metroko malda batetik jausita. Mendizalea berehala hil zan eta gorpua Guardia Zibileko

mendiko erreskaterako taldeak helikopteroz jaso eban.

Istripua Arantzazuko Arginatx Mendi Elkarteko Europako Mendietarako astegoiaren pasako urtekeran gertatu zan. Mendizalea Igorren bizi zan baina Arantzazun egiten eban bizimodua.

AREATZA

Erreferendumaren aldeko herri ekimena aurkeztu dabe Areatzan

Zezeilaren 7an aurkeztu zan eta Areatzako

Elkargunea osotu zan ekimena aurrera erateko.

Areatzako batzarrera, 30 persona hurreratu ziran.



Gure Esku Dagoko batzarra.

Erredakzioa

Hogetabostek izena emon eben Elkargunean parte hartzeako. Baita batzarrean egon ez ziran beste 5 personak be.

Euskal Herri osoan ipini da martxan ekimen hau erreferendum legal bat lortzeako. Lehenengo pausua erreferendumaren aldeko sinadura bilketea izango da, maiatzaren 3tik bagilearen 7ra bitartean.

Elkarguneak, alkarlanerako espazioak dira, eta herritarrak, Gure Esku Dagoko kideak eta alkarreetako kideak osotuten ditue. Oin, elkarguneen ekintza nagusia erreferendumaren aldeko sinadura bilketea sustatzea izango da.

Sinadura bilketea Euskal Herri mailan egingo da, Gure Esku

Dago ekimenak antolatutako guztiak lez, autofinantziauta. Horretarako euro bitan erosi ahal izango diran eskumuturrekoak salduko dira. Sinadurak, Eusko Jaurilaritari, Nafarroako Parlamentuari eta Iparraldeko Mankomunitateari entregauko jakiez.

GEDk sei urte

Oin dala sei urte sortu zan Gure Esku Dago herri ekimena, eta urte honeetan hainbat ekintza egin dauz erabakitze eskubidea aldarrikatzeko; Giza kateak, berbaldiak, konzentrazioak, eta abar.

Areatzan 2017ko zemendiaren 5ean egin zan herri galdeketea. Han, 463 billaroztarrek emon eben botoa, hautesleen zerrendako %45,35a, hain zuzen be.

IGORRE

Umeak eskolara oinez eta bakarrik joateko ekimena martxan

Erredakzioa

Igorreko eskoleak, umeen autonomia garatzeko Eskola bideak ekimena ipini dau martxan, umeak eskolara bide seguruetatik bakarrik eta oinez joatea sustatze-ko. Guraso alkarreetak eskatutako proiektua da.

Ekimena lehenengo hezkuntzako ume guztiarentzat bada be, batez be, LH 3. eta LH 4.ekoak hartzean dabe parte. Helburua, umeak eskolara kuadrillan joatea da. Holan, bidean adostutako lekuren baten alkatuten dira edo batek besteari etxeko tinbrea jota.

Egitasmoa ikasturte hasieran martxan ipini bazan be, "oin arte behaketa lanak egin doguz batez be. Ikusi zenbat ume etorten diran eskolara kotxean, zenbat oinez, zenbat nagusi baten batek lagunduta eta zenbat bakarrik" azaldu

deutso BEGITURI Naiara Rementeria Zaztaparrak-eko kideak. Umeai, galdetegi batez itaundu jakie zer behar daben eskolara bidea oinez eroso egiteko, eta umeak eurak aukeratutako bideakaz mapa bat heldu arazo jakie gurasoai.

Umeai eskolara bidea errazteko proiektuan herriko hainbat eragilek hartzean dabe parte: Inazio Zubizarreta guraso eskoleak, eskoleak berak, Udalak, Zaztaparrak taldeak eta Bizkaiko Urtintxa eskoleak, hain zuzen be.



BEDIA

Bediako baserriak jaso ditu Labayruk monografiko baten

Bediako Udalaren enkarguz Labayru Fundazioak egindako lana da *Bediako baserriak*.

Erredakzioa

Bertan herriko 74 baserri agertzen dira. Labayruko langile eta Bediako zinegotzia dan Igone Etxebarriak idatzi dauz testuak; artxibo lana Asier Bidartek egin dau, eta argazkiak eta diseinua Idoia Tolosak. Liburua 2019an argitaratu eban Labayruk eta urtail eta zezeilean zehar Bediako etxeetara zabaldu dau Udalak.

Ez da Bedian egiten dan lehenengo lana herriko ondarea ezetuten emoteko. "Urte asko daroaguz Euskera Planaren barruan ondarea landuten. Herriko ondarea landuteko hainbeste lan egin dira: toponimia mapea; ibilbide batzuk bideoan herriko parajeak eta lekuak eta ohiturak erakusteko... eta igaz, monografia hau. Urtero-urtero egiten dogu zeozertxo" azaldu deutso BEGITURI Etxebarriak.

Baserriak auzoka dagoz antolatuta argitalpen honetan. Bediako auzoen mapa bat dakar liburuak lehenengotik eta gero auzo bakoxtari atal bat eskaintzen deutso. Atalaren hasieran, auzoaren mapea dago eta han baserriak

kokatzen dira. Baserri bakoxtaren argazkia eta informazioa emoten dauan fitxa bat dago gero.

Bediako baserriak

Monografia honetan, gaur egun eraikina daukien baserriak zerrendatu dira, nahiz eta beste batzuen testigantzak be egon. Kasu askotan, etxea guztiz aldatuta dago edo osorik bota eta barria eginda, baina leku berean eta izen beragaz dagozanak zerrendatu ditu Labayruk.

Baserriak desbardinak izan arren, Bedian, eredu bat da nagusi. "Behean kortea dauka ganaduentzat eta animalientzat; gainean familiaren bizimodua. Kanpoko eskaieratik sartzean da bertara. Barru horretan sala handia dago erdian eta salearen inguru osoan banatzen dira suetea eta gelak. Eta gainean kamarea".

Etxe zaharrena, Eroso-Ugarten dagoan Tosubandoko torretxea da, XI. mendekoa. Auzoai izena emoten deutseen baserriak; hau da, abizenetatik datozenak, dira zaharrenak. XVI. mendean dokumentautu dagoz hainbat. Bediako

etxe zaharrenak XVI. mendekoak dira eta asko XVIII. mendekoak. Baina horrek ez dau esan gura, orduko moduan dagozanik. Aldaketa eta moldaketa asko egin dira.

Bitxiena akaso, auzune berean dagoan Artabene da. Honek behoko sua suetearen erdian dauka. Berezitasun hori daukien baserri gitxi geratzen dira Bizkaian. Artabene be jausten dago. Salgai dago baino inork ez dau erosten.

XX. mendera arte, baserriak autarkikoak ziran. "Baserria zan familiaren lanbidea eta familiaren ekonomia. Eta baserri bakoxta autonomoa zan, produziduten eban berak behar ebana. Animaliak eta soloak eukiten ebezan". Industrializazioaren ostean, bizimodua eta baserria aldatu egin ziran. Familiakoen artean banaketak egiten hasi ziran; pisuka edo ezker-eskoi; kortea, txoko bihurtu dabe... kanpotik antzera dagozanak be, barrutik asko aldatu dira.



ZEBERIO

Xaiborren disko festa frontoi ondoko aterpean

Erredakzinoa

Aratusteetako programazioaren barruan, Austari Kultur Elkarreak ume eta gaztetxoentzako disko festa antolatu dau zezeilaren 21ean, 17:00etarako.

Egun horretan, aterpea aire zabaleko diskoteka bihurtuko da eta jantzan ipiniko ditu Xaibor Zubiak bertara hurreratzen diran guztiak.

Gernikarrak, DJ, animatzaile eta koreografo lanak egiten ditu bere trailer-eszenalekuan. Kantu ezagunen koreografiak egin eta erakutsi egiten deutse hurreratukoai. Ikuskizunak arrakasta handia izaten dau publikoaren artean eta batez be, gatzetxoenen artean.

ZEANURI

Iruña-Veleia Argitu alkarteko kideen berbaldia

Erredakzinoa

Iruña-Veleia, gizarte ustelaren ispilu? Zergaitik ez dabe argitu gure? titulupean, Iruña-Veleia Argituko kideak berbaldia emongo dabe zezeilaren 18an, 19:00etan, Eguzkiolako lokalean.

Iruña-Veleia Arabako Iruña Oka udalerrian kokatutako aztarnategi historikoa da, lurralde historikoan dagoan garrantzitsuena, Erromatar Inperioaren garaikoa. 2006an aurkikuntza harrigarri batzuk egin ziran, euskerea eta kristautasunagaz lotutakoak. Piezak faltsuak ziran akusazinopean, aztarnategiko arduraduna eta beste batzuk akusatuen aulkian dagoz, zezeilaren 3an hasitako epaiketan.



DIMA

Dimako Igor Zuazoren txorizoak bigarren Euskadiko Sariketan

Mungian egiten dan Txorizo eta Odoloste Sariketan bigarren egin dabe aurten Igor Zuazoren txorizoak. Ez da lehenengo saria, igaz Lehiaketea irabazi eban-eta.

Txistorrari jagokonean barriz, laugarren izan zan Ordiziako Euskal Herriko Txistorra Lehiaketan.

Erredakzinoa

Amamak itxitako dendan, 35 urte daroaz Igor Zuazo dimoztarrak beharrea. Gizartea eta konsumoa asko aldatu dirala dino eta eurak produktu freskoan espezializau dirala. Txorizoa, txistorra eta odolosteaz gainera, tripakailuak, sahieski ondua, solomoak, hamburgera klase asko eta saltxitak be egiten ditue Arratiako ganadu eta bertako jeneroagaz.

Sariak jaso dituan txorizoa

"bertoko betiko txorizoa" dala dino. "Piper saltseagaz eginda, pimentoi barik. Piper saltsea, gatza eta berakata. Ez dogu besterik erabilten" dino Zuazok. Euskal Herriko txorizoak danak antzekoak izan arren, odolostetan desbardintasun handiak dagoz. Holan, barbarako, Karrantza aldean, arroza erabilten dabe eta hemen, porrua. Txistorrari jagokonean, nahiz eta Gipuzkoa eta Nafarroan tradizino eta konsumoa handiagoak izan, Euskal Herriko

DIMA



Julen Baz eta Peli Perez de Anuzita.

Garena izenagaz zabalduko dauz ateak barrero lehen Axpe Goikoa izena eukan jatetxeak

Erredakzinoa

Urtaile eta zezeilean, lanak dirala eta zarratuta egon ostean, hilaren 20an zabalduko dauz barrero ateak Garena izenagaz, lehen Axpe Goikoa jatetxea zanak. Izenaz gainera, sukaldarien belaualdia be aldatu egin da. Sukaldari nagusia Julen Baz zornotzara izango da eta Areatzako Peli Perez de Anuzita bere laguntzailea. Holan, "kontzeptu gastronomiko" barria be emon gura deusie jatetxeari.



Vicky Pakarati eta Igor Zuazo.

azken txapelketan, hiru bizkaitar aurkeztu eta bi lehenengo bosten artean geratu ziran.

Beste denda batzuetan saltzeako proiektua

Hamasei urteagaz hasi zan Igor Zuazo harakin ikasten eta 1987an, harategia ipini eban amamak itxitako dendan. Odoloste sasoiaren, 80-90 kilo astean egiten ditue harategiko lante-

gian. Txorizoak prozesu luzeagoa dauka, ia hilabetekoa, egin eta sikatu egin behar da-eta. Partida bakotxean 300 eta 500 kilo artean egiten ditue.

Oin, harategiko lantegia handitu eta hainbeste sari jaso dabezan txorizo, odoloste, txistorra eta gainontzeko produktuak, beste denda batzuetan be saltzeako proiektua dauka Igor Zuazo Dimakoak.

BEDIA

Jatekoa etxera eroateko zerbitzua abiatu dau Jandoniz egoitzak

Erredakzinoa

Konturatuta etxean egoteko moduan dagoan edadeko jente askok, ez ebalu jatekoa behar adina zaintzen, Jandoniz Bediako egoitzak jatekoa etxera eroateko zerbitzua ipini dau martxan Arratia osorako.

Egoitzan emoten diran menu berberak dira eta zerbitzua edo-

nork erabili ahal duan arren, gatz gitxiko eta jateko biguneko menuak dira, edadeko jentearentzako aproposak.

Menu bi izaten dira aukeran, dietista eta medikuak ikuskatutakoak. Bezeroaren beharren arabera kontratau daiteke: astelehentik barikura, egun solteetan edo bazkariak zein afariak bakarrik, barbarako.



Jandoniz egoitza.

ITZIAR ZABALA



Erredakzioa

Noz hasi zinan eskalada munduan?

Beti izan naz nahiko egonezinekoa eta beti gustau izan jata kirol asko probetea. Esku pelotan ibili naz, futbolean, igeriketan... Eskaladan hasi orduko danerik egiten neban, beharizan bat zan niretzat, txikitatik. Beti ibilten nintzan bizikleteagaz alderik alde... Kirol guztietan ibili naz ondo, on egiten izan deuste gainera.

Akorduan daukat baina Dima Rock Master egin zanean plazan nengoala ikusten, gurasoakaz, eta amari esan neutsala "ama, egunen baten hor egotea gustauko jatan". Argi neukan. Hori egin gura neban eta banekian hori egingo nebala. Eta holan izan zan. Pasadizu ha oso grabauta daukat. Hamabi urtegaz zan hori, gazte.

Eta zelan hasi zinan eskaladan?

Dima Rock Master egunean "entrenetan hasi behar naz" pentsau, eta hurrengo eguneko goizeko zortziretan Dimako bulderrean nengoan. Ordurako baegoan bulderra eta akordetan naz bertara joan nintzala, atzamarretatik odola urten arte. Larregizkoa zan, obsesino bihurtu zan. Akordetan naz baten balneariora joan behar ginala eta "ai, eskuak busti egingo dira eta azala apurtu egingo jata" pentsau nebala. Obsesinoa zan.

Zenbat denpora egiten zenuen eskaladan?

Egun guztia. Klase orduak kenduta, egun guztia. Zapatuetan goizeko zortziretan itzartuten nintzan lorik egin ezinda eskaletan joan behar nebalako. Goizeko zortziretan bulderrera joan eta ekin, eta ekin, eta han. Danakaz berbaz, gauzak galdetuten... Bertan gaua egin arte, gero etxera eta etxean be hurrengo egunekoan pentse-

"Harrian zentretako gogoa daukat oin, etxean, eta beste helburu batzukaz"

Dima Rock Master ikusten oilo-narrua eukitetik, atzamarretan odola eukitera pasau zan Itziar Zabala. Oindino umea zala obsesino bihurtu zan eskaladea beretzat.

Horman gora lez, hazten joan da ostera, eta lortu dau bizimoduan sokeari neurria hartutea. Dimoztarrak darabilen magnesio zorroa txikia bada be, makina bat izerdi eta poz daukaz pilotuta bertan, gaur egungo Itziar izateko ezinbesteko diranak.

tan. Akorduan daukadaz eskuak odoletan, komunera joan, busti, garbitu, esparatrapua ipini esku pelotan ibiliko banintzan lez eta barriro be ekin.

Zer emoten eutsun orduan eskaladeak eta zer emoten deutsu oin?

Momentu haretan niretzako eskaladea dana zan. Gaur gauzak ez dodaz bizi intensidade bardinagaz, nire bizimoduko ardatza, duda barik, eskaladea dan arren. Izan be, ez baneban eskaladarik eukiko ez nintzan bizimoduan oso ondo kokatuko. Eta badakit nahiz eta kokatu, ez nintzala gai izango beste era bateko bizimodua egiteko. Beste zeozer topauko neban ezin izango baneban eskalau.

Denporaldi baten eskaladatik kanpo egon zinan. Zerk eroan**eutsun tarte hori hartutera? Distantzia ipini gura zenuen?**

Bai, holan izan zan. Gauza bat obsesino bihurtuten danean... Ez neban helburu bategaz eskaletan. Ni ondo egoteko beharizan bat zan. Konturatu barik, txapelketa batetik bajatu eta Espainiako selekzionadorea jatortzu esanez hurrengo astean Edinburgora zoazela Munduko Txapelketara... Eta orduan konturatuten zara zuretzako jolas bat zana, harago joan dala. Hamazazpi urte neukazanean, heldu zan puntu bat esan nebana "gaur ez dot gura. Ez dot gura ze konturatu naz ez dala jolas bat, zeozer gehiago dala". Eta guztiz ebagi neban. Beste gauza batzuetan zentrau nintzan, lagunakaz egon, zein hamazazpi urteko gazte batek

egiten dauzan gauzak egiten.

Urte bat edo holako zeozer izan zan, eta barriro be eskaletan hasi nintzan, beste perspektiba bategaz, trankil, nire airera. Eta, ez dakit zergaitik baina bizimoduak barriro be txapelketetara eroan eustan. Zorionez, ja ez nintzan hain umea, eta gauzak beste era batera eroaten ikasi neban, beste era batera hasi nintzan hau biziten, ez obsesino puntu horregaz.

Gaur egun zelangoa da zure egun bat?

Modu kaotikoan bizi naz, agenda barik esan gura dot. Eta emoten dau ez dodazala gauza asko egiten baina parau barik bizi naz. Rokodromo baten egiten dot behar, arrasti guztia rokodromoan sartuta nago. Ez dot asko entrenetan klaseak emon behar do-

dazalako eta bestelango gauzak egin behar dodazalako. Ez naz kantsau eskaladeagaz, baina momentu honetan bizi dodana ez da entrenamentuetara bideratutakoa. Astelehen eta eguaztenetan klase-ra joaten naz. Beste egunetan, Baltzolarra joaten naz proiektu bategaz buru-belarri nabilelako; orduan, eguraldia ona bada hara joaten naz. Bestela, mendira joaten naz, zein beste gauza batzuk egiteko be aprobetxetan dodaz goizak. Arrastiz, beharrera.

Lesionauta egon zara zati baten. Orduetik ez dogu zure barriro euki.

Oso kuriosoa da ze ez nintzan entrenetan ibili, eta askotan kontua ez da entrenetea, zu buruz garbi eta lasai egotea baino. Iruñara joan nintzan baina nire helburua ez zan txapelketa ha prestetea. Gauzak ondo urten ziran eta irabazi egin neban. Egia esan ez neutsan aparteko garrantziarik emon, beste astegoien bat izan zan niretzat. Espainiako Bloke Txapelketako lehen saiora ez nintzan joan, ez egoan nire planen barruan eta. Txapelketara joatearren joan nintzan eta inozko txapelketarik onena egin neban, guztiz entrenau barik joan arren. Espainiako selekzinora sartzeako neurriak oso oso gogorak ziran, eta horregaitik, konpetidutea deskartau neban, ezinezko ikusten neban. Kasualidadez, Madrileko bigarren Espainiako Kopara joan nintzan eta bloke guztiak lehenengo saiakerean egin nebazan, bai klasifikatoriakoak eta bai finalekoak. Espainiako hautaizaille barria egoan bertan, David Macia. Kanpora atera ninduan eta esan: "bueno Itziar, ez dot jakin holan zabizenik, Espainiako selekzinoaren barruan zagoz eta prestau zaitetz ze, datorren hilean Innsbruck-era, Europako Txapelketara goaz, eta gero Estatu Batuetara eta Japoniara, eta goazen

Joko Olinpikoetarako mahai gainean dagoan guztia ipinten". Apur bat despistauta harrapau ninduan, baina dietan ipini eta zoroan lez entrenetan hasi nintzan orduan.

Europako Txapelketara joan nintzan, ez zan oso txapelketa ona izan, nahiko kantsauta nengoa hain gogor entrenau ostean eta. Estatu Batuetara joan nintzan gero eta bigarren blokean bizepseko tendoiak errementau egin eustan. Ez nintzan konturatu errementau eustanik be. Japoniara bidean, hegazkinean, besoa beherantza neukala etorri nintzan. Bilbora bueltau nintzan, berotuteko besoa altxau neban eta "fisio bat behar dot, hemen zeozer dago!" esan neban. Kasualidadez Txinako selekzioa Bilbon egoan eta euren medikuak begiratu ostean "hau ez da broma bat" esan eustan. Probak egin eta bizepseko tendoiak apurtuta neukala jakin neban, orduan ezin izan neban ezer egin. Bost hilebete geldi egoteko esan eusten. Medikarenera bueltau nintzanean, bost hilabetean geldi egon nintzan arren, geldi egon ezean be bardin izango zala esan eustan, ez dala erabarrituten. Baina ni eskaletan hasi nintzan barriro, ezer pasauko ez balitz lez, gaur arte.

Eta oin?

Eta oin ba puntu bardinean nago barriro. Nire buruan ez da egon momentu baten be ez Joko Olinpikoetako idea hori. Oso interesgarria irudituten jata eta benetan itzela da hor egon ahal izatea, baina bakotzak bere balantzak ipinten dauz eta niri ez deusta konpensean hara joateak.

Espainiak hartuko dau parte?

Bai. Alberto Ginés López doa. Hamazortzi neska eta hamazortzi mutil dirala uste dot, mundu oso-tik. Pentsau, Munduko Txapelketan bostehun kirolari gagoz. Hiru disziplinetako media eginda: bulderra, zailtasuna eta belozidada, horreetatik hamazortzi doaz Joko Olinpikoetara.

Horreek hiru modalidadeak: bulderra, zailtasuna eta belozidada egoteak polemikea sortu dau, bakotzak espezialidade bat eukiten dauala eta, ezta?

Bai, eta beti izan da holan. Lehen sokeagaz joaten zan eskaletan, esan daigun "zailtasuna" izango zan modalidadea. Gero bulderra modan ipini zan. Ez neuke jakingo esaten zein dan historian lehenengo, zailtasuna edo blokea, baina danok eskaladeagaz gehien erlazioetan doguna zailtasuna da, sokeagaz eskaletan. Gero sortu da abiadura, eta abiadurak ez dauka eskaladeagaz bape zerikusirik. Ez deusat baliorik kenduten baina ez dauka zerikusirik. Munduko eskaladorerik onenak ez dauka zertan abiaduran ona izan. Horregaitik sortu da polemikea, zergaitik inbertidu behar dau holaro eskaladore batek denporea abiaduran benetan ez danean bere modalidadea?

Badago abiadura entrenetako aukerarik?

Lehen ez zan egoten. Oin dala gitxi Iruñean ipini eben, lehenengo horrea, horma ofiziala.

Euskal Herrian horma bat bakarrik?

Euskal Herrian bakarrik ez, Espainian ez dakit bi bakarrik ez ete dagozan! Madrilen dago bestea. Beste herrialdeetan asko inbertidu da, antxinatik jakin dabe olinpikoa izango dala. Baina guretzat ezustea izan da. Halanda be, badoa Alberto Ginés. Hiru disziplina dira, medaila bakarra dago ez dabelako busti gura izan zein izan beharko litzateken disziplina olinpikoa esaten. Hurrengo Joko Olinpikoetan ez da holan izango medaila bi egongo diralako, bulderra eta zailtasuna batetik, eta abiadura bestetik. Eta hurrengoetan bakotzak bere dominea

esan oso ondo balorau nabe beti. Suertea euki dot aukera horreek eukiteagaitik ze benetan gatxa da laguntzaileak eukitea, batez be laguntzaile ekonomikoak.

Ze gabezia ikusten deutzaz kirol honeri?

Ez dakit esaten noana atrebidea izango dan baina nik pentsetan dot gaur egun gauza bi desbardin du behar doguzala Euskal Herrian. Bata oso txarto edo ez hain ondo dago, eta bestea oso ondo. Bata da Euskal Herrian eskaladea sano modu gurean bizi dogula, pilo bat harri daukagu, oso eskalatzaile onak dagoz; eta, mendiko eskaladeari jagokonean, eskalatzaile horreek ezin doguz ahaztu. Izan be, Euskal Herria horretan beste herrialde batzuen gainetik dago.

Beste kontu bat kompetizinoan da. Kompetizinoan hemen oso

oso berde dago. Barria dalako be bai, aurten sartuko da Joko Olinpikoetan eta. Ez da asko entzuten ezta ikusten be. Baina harro egon behar gara Euskal Herrian eskaladeak lortu dauzan gauzakaz. Josune Bereziartu daukagu hemen. Bereziartuk harrian egin dauzan gauzak oindino be ez dira lortu. Pou anaiak daukagu, Patxi Usobiaga... Euskal Herria eta Katalunia munduan erreferente dirala esango neuke. Munduko eskaladore onenak kompetizinoan Euskal Herria eta Kataluniara etorten dira eskaletan. Adam Ondrak adibidez, bere lehenengo 9a eta munduko lehenengo 9a Diman egin eban, Baltzolan. Orduan horretaz harro egon behar dogu.

Baleiteke izatea gaur egun txapelketa ofizialetatik aparte ez dagoalako esate baterako Dima Rock Master moduko



eukiko dau.

Eskaladea egitea karua da?

Oso merkea edo oso karua izan leiteke. Berez materiala momentuan erosten zoazenean karua da, bueno, karua edo, ez dakit: ehun euro balio dauz sokeak, berrogeta hamar arnesak... Beste alde batetik, rokodromo on batera joan gura badozu, gimnasio baten lez, ordaindu egin behar dozu. Orokorean ez neuke esango oso karua danik, uste dot edozein personak permitidu leiken gauza bat dala.

Bertatik bizi leiteke?

Bai. Kirol guztiak olinpiko egiten diranean bertatik bizi leiteke. Baina aukera bi daukazuz: zure irudia oso ondo saldu, edo oso oso ona izan. Mikel Linazisoro, Pou anaiak... badagoz adibideak. Neurri handi baten eskaladatik bizi naz neu be, Piu Gaz-en klaseak emoten dodazalako.

Patrozinadoreak topetako arazorik euki dozu?

Nire kasuan ez da arazo bat izan, euki dodaz patrozinadoreak. Egia

txapelketarik?

Eboluzionetan daben gauzak eta personak dagoz, eta beste batzuk inboluzionau egiten dabenak. Kasu honetan inboluzionau egin dogu. Ez dakit errazoia zein dan. Ez dakit lehen herriak ipinten eban inplikazioa izango zan, eskaladeak kompetizinoan hartu dauan indarra, olinpikoa izatea, holakoen beharrik ez dagoala ikustea... zer dan atzerantza eroan dauana. Dana dala, gaur egun ez dira horreek gauzak egiten. Ez dot Dima Rock Master esaten. Baina egia da holako txapelketa herrikoiak gero eta gitxiagoa joan dirala, galdu egin dau arlo honetan eskaladeak, inboluzinoan gertatu da.

Andrak aukera bardinak daukiez kirol honetan?

Niri zeozek benetan harro sentidu arazoten badeusta eskalatzaile izatetik, holan definiduko neukelako neure burua, da kirol honetan gizonak eta andrak bardinak garala, andra batek gizon bateri irabazi ahal deusalako.

Nire begiakaz ikusi dot zelan Munduko Txapelketa baten neska gazteago batek irabazten dauan, gizonazkoen bidean superfinala eginda eta eurak baino gehiago eginda. Bizi izan dodalako be bai konzentrazinoetan munduko onena edo Munduko Kopa irabazi dauan gizonazkoa bide bat egiten saiatu eta lortu ez dauana zelan Munduko Txapelketa dan neskak berotuteko egiten dauan bide hori. Horregaitik, esango neuke oso parekatua dala, bai kapazidadez eta bai sarietan bardinak gara. Zorionez bardin balorauta gagoz neskak eta mutilak. Gustauko litzakit beste kiroletan be egunen baten bardin izatea.

Zer daukazu hobetuteko?

Hobetuteko gauza asko daukadaz. Baina ez eskaladan bakarrik, danean, oindino gaztea naz eta. Eskaladeari jagokonean diru gehiago inbertidu behar dala pentsetan dot. Espainiako selekzioetik persona bat doa Joko Olinpikoetara, Japoniatik asko. Japoniak asko inbertiduten dau eskaladan, eta Espainiako selekzioak ez hainbeste, edo ez daukagu hainbeste erreminta. Zorionez Euskal Herrian gugaz oso oso inbolukrauta dagoan fisioterapeuta bat daukagu, ez jaku falta ezer. Rokodromo oso on bat be badaukagu Bilbon, baina egia da adibidez Gipuzkoan ez dagoala aukera hori. Inbersino eta baliabide gehiago behar doguz.

Badago beste gai bat be, aitatu gurako neukena. Euskal Herrian, eta gure kultureagaz, penea emoten deusta Baltzolar joan eta jentek ez dauala inguru errespetetan ikusteak. Uste dot gehiago balorau behar dogun gauza bat dala. Lurrera botaten doguzan gauzak batu, zaindu. Izan be, gero danok kejetan gara lekuak itxi zein erreguletan dabezanean. Gure bazterrak errespetu apurtxo bat gehiagogaz tratetea gura dot. Benetan tristea da jentek Coca-cola bat ixten dauala ikustea; min egiten deusta, eta ez latea bertan itxi daualako ze joan eta batu egingo dozu zuk, baina inguruarenganako errespetu hori...

Pentsau dozu inoz kanpora joatea? Japoniara esaterako?

Ez. Ez jata burutik inoz pasau ze, ni oso hemengoa naz. Nire kasuan, ez danak eta ez gura beste baina badaukadaz erremintak bertan. Euki dot kanpora joateko aukerea, txapelketetatik aparte be egon gara konzentrazinoetan, orduan kanpoan egoteko aukerea euki dot gura izan dodanean: Milanen, Alemanian, Austrian...

2020ko proiektuak?

Bihar ez dakit, baina momentu honetan argi daukat urtea ez dala txapelketari begira joango. Akaso probaren baten parte hartuko dot, baina oin ez nago horri begira. Harrian zentretako gogoia daukat oin, etxean, eta beste helburu batzukaz. Helburu ez errazagoak ez gogoragoak, desbardinak.

"Akorduan daukat Dima Rock Master egin zanean plazan nengoala ikusten, gurasoakaz, eta amari esan neutsala 'ama, egunen baten hor egotea gustauko jatan'. (...) hurrengo eguneko goizeko zortziretan Dimako bulderrean nengoan"

TXIRRINDULARITZEA**Julen Zubero bigarren Saudi Arabiako Titan Serietako lasterketan**

Bigarren etapea irabazi eta sailkapeneko buru be izan zan. Atzenean, Josep Beteluk irabazi eban lasterketea. Lemoako txirrindulariaren bederatzigarren Titan Desert lasterketea izan da. Bere helburua, etapa bat irabazi eta podiumean amaitutea izaten da. Aurten be, bete egin dau.



Julen Zubero.

Argazkia: Cris Casal.

Erredakzinoa

Aurten dana dala, Titan hiru lasterketa dagoz. Serie bat. Lehenengo, Saudi Arabiako izan da, aprilean izango da beste bat Marokon, urterokoa, eta urte amaieran Mexikon, hirugarrena. Aprilekoa be egitekoa da Zubero. Urterokoa da, sei etapa, hiru lasterketetan izen handiena daukana. "Han egon behar da" dino

ziklistek.

Saudi Arabiako basamortuan Urtaile amaieran eta zezeil hasieran, lau etapa izan ditu lasterketeak. Lehenengo etapea Hail uritik basamortura, etapa bi basamortuan eta hirugarrena basamortutik urira. Lehenengo etapan ez zan ondo sentidu arratiarra, "biajeagaitik edo", baina handik aurrera hobera joan zan dana.

TRINKETEA**Bizkaiko Trinkete finalerdietarako sailkatu dira Ziarrusta anaiak****Erredakzinoa**

Dimako Txumuluxueta klubeko Ekhi Ziarrusta eta Lur Ziarrusta anaiak, Bizkaiko Binakako Txapelketako finalerdia jokatu dabe zezeilaren 22an, Abadiñon, Aitor Arabiourrutia eta Eneko Uribe igazko txapelakaren kontra. Irabazi ezker, finala hilaren 29ko astegiaren izango da.

Txapelketan sei bikote neurtu dira eta 5 partidu jokatu ditue. Txumuluxuetakoak galdu egin

eben lehenengo, hurrengo hirurak irabazi eta atzena, finalder-



Ziarrusta anaiak.

Bigarren etapea izan zan irabazi ebana eta sailkapenean be lider jarri zan, gurpil bat zulatu eta beste aberia bat be izan arren. Hirugarren etapan, beste arazo mekaniko bat eta "hor galdu nebazan aukera guztiak" azaldu deutso Zuberok BEGITURI. Hirugarren egin eban baina lau minutu galdu ebazan. Atzen eguneko etapea aldats beheranzkoa izan zan, "abiadura handikoa eta denporea errekeretea gatxa zan". Etapa honetan bigarren egin eban, baita sailkapen orokorrean be.

Lehenengo urtea izan da Saudi Arabian egiten dala lasterketa hau eta antolakuntza itzela izan dala dino Lemoakoak. "Kanpamentua hotel baten modukoa zan, erosotasun guztiakaz. Sari banaketea Hail-en izan zan eta hanga printzea be egon zan".

Marokoko Titan eta itzulia

Saudi Arabiako lan onaren ostean, Zubero Bilboko familiako dendako beharrera bueltatu da eta ia astero dauka lasterketaren bat. Bilbo inguruan dagozan lasterketa ia guztietara joaten da. Aprilean, Titan Desert Serietako Marokoko lasterketan parte hartzeako asmoa dauka eta ostean, Ibiza eta Aragoiko itzulietan.

dietan aurrez aurre izango daben bikotearen kontra, galdu egin eben. Ha-ta guzti be, eta jakinda erraza ez dala izango, partidua irabaziko dabelakoan dago Lur Ziarrusta. "Gure jokoa egiten badogu, irabazteko aukerak daukaguz. Partidua luzea izango da, ez da erraz irabaztekoa, baina espero dot irabaztea" azaldu deutso BEGITURI Txumuluxuetako pelotariak.

AZKOREA

Maika Ariztegi eta Irati Astondoa.

Urrezko Aizkolarien finalerako sailkatu da Irati Astondoa**Erredakzinoa**

Urrezko Aizkolaria Emakumeen Banakako Txapelketako finalera sailkatu da Irati Astondoa azkolaria zeanuriztarra, zezeilaren 9an Maika Ariztegiaren kontrako aurrez aurrekoa irabazi eta gero.

Beasainen izan zan norgehiagoa eta Astondoa erraz nagusitu jakon Ariztegi. Izan be, arratiarrak 7 minutu eta 33 segundotan gelditu eban erlojua eta iturendarrak 9 minutu eta 11 segundo behar izan ebazan beharrak amaituteko. Finala Azpeitian jokatu da martiaren 7an.

Ariztegi irabazita, Astondoa

finalerako pasea lortu dau. Nerea Sorondo eta Maika Ariztegi neurtuko da bertan.

Txapelketea

Txapelketea ligaxka moduan jokatu dabe lau azkolarik: Nerea Sorondo, Itxaso Onsalo eta Maika Ariztegi nafarrak, eta Irati Astondoa zeanuriztarra.

Daborduko hiruren kontra neurtu da Astondoa. Lehenengo aurrez aurrekoa irabazi egin eban Itxaso Onsaloren kontra; Nerea Sorondoren kontra barriz, galdu egin eban bigarrena, eta Maika Ariztegi irabazi egin eutsan atzenengo.

SOKATIREA**Badaiotz taldeak Euskal Herriko Goma Gaineko Sokatira ligea irabazi dau****Erredakzinoa**

Badaiotzen, Ruth Linaza tiralari lemoaztarra dago. Lehenengo saioan lider jarri ziran eta amaitu arte mantendu dira lehenengo postuan, txapela lortuz.

Hiru jaurdunaldi izan dira eta sei talde neurtu dira. Lehenengo saioan, Badaiotzek irabazi egin

eban eta sailkapeneko buru jarri zan. Bigarren egunean, bigarren egin eben, baina jarraitu eben lidergoan. Hirugarren jardunaldia gatxena izan zan. Izan be, Badaiotzek, Txantreak eta Beti Gaztek puntu bardinakaz amaitu eben eta bardinketea apurtuteko, batak bestearen kontra jardun behar izan eben hiru taldeak.



MENDIA



Everest-eko tontorrera abiatuteko prestatzen dago Alex Txikon

Alex Txikonek zezeilaren 10ean behe kanpalekutik zabalduko oharrean adierazo ebazan tontorrera ekiteko bere planak.

Erredakzioa

Dana ondo beharrean, zezeilaren 13an, hirugarren kanpalekuan egongo ziran Lhotse mendiaren paretean, eta gero, Hegoaldeko Lepora joateko asmoa eukien 8.000 metrora laugarren kanpalekua ipinteko.

Asmo honek guztiak gauzatu-teko eguraldiaren laguntzea behar dabe eta lehenago be atzeratu ditu Txikon eta bere espedizinkideen planak. "Bigarren kanpalekutik behe kanpalekura jeitsi ginan zezeilaren 7an, sano baldintza gogorretan eta sensazioa gazi-gazagaz hirugarren kanpalekura ailegetea ez gendualako lortu" azaldu eban Txikonek oharrean.

Laugarren kanpalekura heldutakoan, tontorrerako saiakerea egingo leukie. "Baikorrak gara, uste dogu hainbeste amestu dogun aukerea eukiko dogula. Gai-

nera aurten 40 urte beteten dira Krzysztof Wielicki eta Leszek Cichy poloniarrek neguko lehenengo igoera egin ebela eta horrek gehiago motibetan gaitu. Senak dinosta zezeilaren 25 eta 29aren artean izan leitekela eguna... baina ikusiko dogu. Pausuz pausu joango gara" dino eskaltzaileak.

Bat gitxiago ekiptoan

Jonatan Garcia espedizinkideak istripua izan eban zezeilaren 2an eta bertan behera itxi behar izan dau Everesteko tontorra zapaldu-teko asmoa. Arrakala batera jausi zan eta bere espedizinkideak erreskatau behar izan eben. Larria izan ez bazan be, min hartu eban eta ezin izan dau tontorra egiteko asmoagaz jarraitu.

Oin Alex Txikon, Oscar Cardo, Norbu Sherpa, Pechhumbe Sherpa eta Tenjen Sherpa dabiz Everest mendia eskaletan.



TAEKWONDOA

Jon Andoni Cintado zeberioztarra Espainiako Taekwondo txapelduna

Txapelketea zezeilaren 1ean jokatu zan Torrelavegan (Kantabria).



Jon Andoni Cintado.

Argazkia: Abel Lapatza.

Erredakzioa

Bertan, 280 kirolarik hartu eben parte eta aurten Tokioko Joko

Olinpikoetan erabiliko diran markagailu eta teknologiak erabili ziran. Faboritoen artean, Valenziako federazioagaz doan Jon

Andoni Cintado zeberioztarra egoan: igaz txapelketea irabazi eban 74 kilo baino gitxiagoko kategorian eta aurten be ez eban hutsik egin 80 kilo baino gitxiagoko kategorian neurtu zan arren.

Cintadok gatx ikusten eban txapelketea irabaztea. Izan be, kategoria barrira pasetako ebatzia abenduan hartu eben eta kategoria honetan "ez nintzan zerranda burua; barrero hutsetik hastea lez zan. Zerrendaburua Ramon Ruiz zan, niri 7 edo 8 bider irabazi eustana".

Aurkari gogorrak

Ligaxka aurkeztu eutsienez, aurkari gogorren kontrako burrukak eukazala ikusi eban zeberioztarrak. Baina lehenengo burrukaldia, Troitiñoren kontra, 20ko aldeagaitik irabazi eban. Hogeiko aldea dagoanean burrukea amaitzat emoten da. Bardin amaitu eban bigarren burrukaldia, 20 aldeagaz. Hirugarrena, Ramon Ruizen kontra zan. Sano estua, 13-12 irabazi eban Cintadok. Finala barriz, eroso irabazi eban 21-8 Alvaro Leoren kontra.

"Sano pozik nago. Familia eta lagunak hurreratu ziran Torrelavegara-eta. Gainera, kategoria honetan barrero be Espainiako titulua lortzeak ilusino handia egin eustan".

MENDIA

Elur Goritan, Jurek Ziemkiewicz-ek Kamchatkan egindako ibilbidea Mendi Amesgarriak saioan

Erredakzioa

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuten dituan Mendi Amesgarriak saioetako lehenengoan, 2019ko Bilbao Mendi Film Festival-eko *Nebula* film labur onena, eta *Cholitas* epaimahaiaren saria, ikusi ahal izan ziran. Baita *Harria herria* filma be. Bigarren saioan, hilaren 21ean, 19:30ean, *Ostatnia Góra* mendiko film onenari eta zuzendari onenari sariak jaso dituan eta *Elur goritan* eta *Allein* filmak ikusteko aukerea egongo da Igorreko Lasarte Aretoan.

Dariusz Zaluski zuzendari poloniarren *Ostatnia Góra* (Azken mendia) 83 minutuko filmak 2018ko neguan, K2 mendira Krzysztof Wielickiren espedizinoa erakusten dau. Hile bi horreetan, esperientzia asko bizi izan ebezan espedizinkoak: harrien eta edur jausien mehatxua euskaldunen ibilbidean (Txikonena, hain zuzen), ebakuazioak, Adam Bielecki eta Denis Urubko Nanga Parba-

teko Elizabeth Revol alpinistearen erreskatea, barne tensinoak, presino mediatikoa, baldintza klimatologiko ikaragarri txarrak... K2 mendia neguan igotea zelangoa dan erakusten dauana.

Jon Goikoetxeak eta Iker Larrañagak zuzendutako 14 minutuko *Elur Goritan* eta Robert Jasperren *Allein* (Bakarrik) 11 minutuko be ikusi ahal izango dira Igorren.

Elur Goritan

Dokumental honetan, eskiztaile talde batek, tartean Jurek Ziemkiewicz arratiarrak, Kamchatkako sumendietan eskietan pasautako egunak jasoten dira. Dokumentala egiteko, proiektu bi baten batu ziran. Izan be, alde batetik, zazpi lagun eskiztailek Kamchatkara eskietan joateko asmoa eukien, eta bestetik, Bideolan produkzio-eteak BBK Mendi Film Bilbao-Bizkaierako film bat egin gura eban. Hori dala-eta pelikulea egin eta sail ofizialean sartzea lortu eben.



Kamchatka Errusian dago, Siberiako eskualde bat da, lurralde oso isolatua. Han sumendi aktibo asko dagoz eta krater barruan eta kanpoan, fumarola artean, eskietan ibili zan lagun taldea.

Atzenik *Allein* film laburrak Robert Jasperrek Groenlandiara bakarrik egindako biajea kontetan dau.

BERBALDIA

Carmen de la Mata: "Libreago egiten dituen ondare emozional eta personala daukie edadeko andrak"

Carmen de la Mata Agudo, Cordobako Unibertsitateko Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea, Areatzan egongo da zezeilaren 27an. Zahartzaroan bakarrik biziteak daukazan alde on eta txarren gainean egingo dau berba.



Carmen de la Mata.

Erredakzioa

Carmen de la Mata feministea da, Psikopedagogian lizentziaduna eta Sevillako Unibertsitateko Psikologia Fakultatean Emakumeen eta Generoaren Ikasketetan doktorea.

Andren zahartzea eta bakarrik bizi diran edadeko andren bizitarako estrategiak ikertu dozuz. Zeintzuk dira estrategia horreek?

Laugarren adineko andrakaz egin dot ikerketea. Eurentzat gakoak dira sinesmenak eta bakardade

terminoaren kontzeptualizazioa berregitea eta norberaren burua zaintzeko konpromisotik abiatuta, eguneroko jokabideak helburu barrietara egokitzeko beharra. Beste alderdi garrantzitsu bat da, maila afektiboan eta emozionalean eregiten dituen jakintzak errekonozidutea. Izan be, ezagutza horreek aukerea emoten deutsee euren bizitzakaz pozik sentiduteko estrategiak eregiteko. **Bakardadeak sano prentsa txarra dauka, baina ez da gauza bera bakardadea eta isolamentua. Bakarrik biziteak norbere buruaren aurkikuntza, eta bakardade atsegina ekarri lei. Zeintzuk dira baldintzak hori holan izan daiten?**

Egile batzuek bakardadea, bakardade objektibo eta subjektibo moduan sailkatzen dabe. Lehenengoa, gizarte harremanen presentzia edo gabezia (sarearen tamaina, harremanetarako sarritasuna, eta abar) lango alderdiakaz lotzean dabe. Bakardade emozionalak barriz, lotura handiagoa dauka harremanak emoten deuskuen bizi kalidadea eta intimitadeagaz. Eta isolamentu soziala, "bakarrik egoteagaz" baino "bakarrik sentiduteagaz" lotuago dago. Honek ez dauka

zertan esperientzia negatiboa izan. Persona batzuek, sare txikia izanda, pozik eta zoriontsu bizi dira. Eta sare zabalak euki arren, txarto sentiduten diran personak be badagoz, mantentzen dituen intimitade eta atxikimendu loturak ez datozeelako bat euren itxaropen edo nahiakaz.

Zahartzaroan bakarrik bizitea aukerea ala patua da gehientzat?

Gero eta luzeago biziteko aukerea dago. Jaiotzeko bizi-itxaropena handitu egin da, beste edade batzuetako bizi-itxaropena be bai, eta heriotza-tasea murrizten doa. Horrek edadekoen eta laugarren edadekoen biziraupena handitzea ekarriko dau. Baita bakarrik bizi diran personen kopurua be. Edadez nagusia izatea eta andra izatea persona bakarreko etxeetan biziteagaz lotzean da. Hata guzti be, ingurune ona izan ezker (baliabide ekonomikoak, gizarte-baliabideak edo osasun-baliabideak), progenieagaz familiako beste kide batzuek, edo egoitzetan bizi beharrean, bakarrik bizitea aukera bat izan daiteke zahartzaroan.

Franco hil ondoren antolatutako feminismoaren lehen militanteak erretiro edadera ailegetan dabiz. Zer ekarpen egiten deutso horrek andren zahartzeari? Eta feminismoari?

Pentsetan dot oin zahartzarora ailegetan diran andrak gai izango dirala libreago izaten markautako rol sozialai jagokienez, bakarda-

dearen esperientziagaz daukien hartu-emona eraldatzeko. Bakardadea okerrago ikusi da andrangan gizonengan baino, feminitasuna "besteentzat izateko" aginduaren gainean eregi dalako. Eta holan, bakarrik bizi dan andranganako begiradea, "osorik ez dagoan izakia"renganako edo familiaren kontra eraso egiten dauan izaki arriskutsuarenganako izan da.

Andra zaharrak libreagoak dira?

Edadeko andrak libreago egiten dituen ondare emozional eta personala daukie eta jakintza horreek, aitortuak diranean, ongizaterako tresna bihurtzen dira.

Zeintzuk dira feminismoak eskaintzen dituan zahartzarorako tresnak?

Edadeko andrakaz egindako lanari esker, konprobau ahal izan dot andrak gai dirala, zaintzan eta bizi-bilibidean egindako loturak, besteakazko loturak hobetuteko estrategia moduan erabilteko. Hori Anna Freixas edo Dolores Juliano lango irakasle eta ikertzaileen lanak irakurrita ikasi neban. Pentsetan dot gainera, feminismoak erakutsi deuskula androi autonomia eregiten; bai Marcela Lagardek norberaren buruarenganako maitasuna definiduteko erabilten eban *mismidad* terminotik, baita geure burua besteakazko harremanaren erdigunean eta subjektu gisa kokatzeko komenigarritasunik be. Biak ala biak funtsezkoak iruditzen jataz bakardadeari eta zahartzeari aurre egiteko.

ZURE ZERBITZURA
Avia guztira 192 gasolindegia
Avia Adenor 35 gasolindegia

ADENOR Igorre
www.aviaenergias.es

Explanada Punta Ceballos z/g
48508 Zierbena (Bizkaia)
Tel. +34 944 130 159

Banaketa
Berogailuetarako
gasolio zerbitzua



GURE BIHOTZA
Operazio zentroa
Bilboko Portu Autonomoan





KONTZERTUAK

Reincidentes taldearen Kiñuko kontzerturako sarrerak salgai

Erredakzioa

Martiaren 13an, 21:00etatik aurrera, Igorreko Kiñu Gaztetxean Reincidentes eta Dientes de Luna taldeak kontzertua emongo dabe. Sarrerak salgai dagoz Axular Herriko Tabernan eta Kukuman.

Hogeta hamar urte dira Reincidentes rock taldea sortu zanetik. Gizarteagaz sano kritikoak eta ikuspegi soziala dituen kantuak egin izan ditu eta egiten ditu, rock estiloko musikan. Taldearen ibilbide

luzean 20 diskotik gora kaleratu ditue. Bere lanik ezagunen ar- tean, Marinaleda herriari dedikau- tako *Andalucía entera* edo Fermin Muguruzagaz kolaborazioan egindako euskal gatazkearen in- guruko *Un pueblo* abestiak dagoz.

Dientes de Luna Gernikako rock taldeak be joko dau Kiñu Gazte- txean. 2005ean sortu zan arren, 2011n egonkortu zan taldea. *Mas vale tarde* (2015), *Mi abril* (2017), *Utopista* (2018) eta *Atmosfera* (2019) lanak ditu kalean.



ANTZEZLANA

Safari antzezlanaren Lasarte Aretoran

Erredakzioa

La Baldufa Teatre konpainiak bullying-aren gaia landu- ten dauan antzezlanaren dakar Igorreko Lasarte Aretora. Hiru urtetik gorakoentzat gomendatuta dago eta zezei- laren 29an, arrastiko 18:00etan izango da emonaldia.

Sinopsia

Piñot eta Calabacin Afrikako sabanan dagoz, lehoia-

ren desagerpenaren barri misterioitsua jaso dabe-eta. Jirafeari, tximinoari, elefanteari, krokodiloari... galde- rak egin deutseez, lehoiagaz topau diran arte. Lehoia burumakur eta pentsakor dago, ez dakialako orro egiten. Piñot eta Calabacin horren zergaitiak zeintzuk diran jakiten ahaleginduko dira.



DIMETAL

Sarrerak salgai dagoz Diman eta Bilbon

Erredakzioa

Dimako Baltzola tabernan eta Bilboko Iturribide kaleko El Metal tabernan salgai ipini ziran sarrerak zezeilaren 7an eta hilaren 18tik aurrera erosi ahal izango dira jaial- diaren webgunean, urri lehenen- goaren 25 eta 26an izango dan Di- mako heavy metalaren jaialdirako. Asgarth, Niña Coyote eta Chico Tornado, 4 Villains, Bast Wave eta Reno Renardo taldeak be egongo dirala jakinarazo dabe Dimetale- roak Kultur Elkartea, antolatzaileak.

Hamahiru urtez eszenalekueta- ra igon barik pasau ostean, Do- nostiako Añorga auzoko Asgarth taldeak Diman joko dau. Taldea 2007an banandu zan, baina baja eta bateria joleak aldatuta,

kantu barriak sortzean dabil eta eszenalekuetara itzuli da. Diman, abesti barriez gainera, banandu aurretiko albumetako kantuak be joko ditue. *Jainkoen egoitza*, *Etor- kizunaren sustraia*, *III* eta *Garrasia* dira orduan ateratako diskoak.


Basamortuko rock pisutsu eta "pozoitsua" egiten daben Niña Co- yote eta Chico Tornado donostia- rrak be egongo dirala iragarri dabe. Euren *Eate* (2016) lanak, euskeraz- ko album onenari saria jaso eban. Reno Renardo bizkaitarrak umorea ipiniko dabe; 4 Villains talde bilbotar- rrek rock-metalala "post-apocaliptika" estetikeagaz eta Blast Wave irunda- rrek heavy metal klasikoa joko dabe.

Sarrerak

Aurten, Dimetalfestek sarrera li-

bredun eremuak izango ditu eta ordaindu beharreko beste espa- rru bat. Kartelean azalduko da ze talde izango diran sarrereagaz eta zeintzuk ikusi ahal izango diran doban. Baita egunez eguneko banaketea be. Astegoen osoko txartela edo eguneko sarrerak erosteko aukerea egongo da.

Egun bietarako txartelaren prezioa 38,50 eurotako da aurrez erositako eta 44 eurotako egunean bertan. Eguneko sarrerak barriz, aurrez 22 eurotan eta bertan 27,50 eurotan salduko dira.



DUNBA

Bideojokoak benetan sortu leikie menpekotasuna?

Elene Lamadrid eta Joane Bilbao Arratia Institutuko ikasleak

Oin dala hamar urte hasi zan apurka-apurka bideojokoaren mundua hedatzen Espainia mailan. 2018ko estadistiken arabera, astean 6,2 ordu izan zan batz bestekoa. Esan daiteke azken urtean estadistikak gora egin dabe- la nabarmen. Bideojoko zaleen artean hainbat maila desbardin- du daitezke: badagoz astean pare bat ordu jokatzen dabenak eta badagoz adikzioa daukienak. Eretxi desbardin asko dagoz ho-

nen inguruan, baina eskuetatik joan ahal jaku bideojokoaren erabi- lereaa?

Egunean zehar oso estresauta egon ondoren, burua despeje- tako modu bat da bideojokoetan jolastea, honeetan murgilduz. Horrez gainera, lagun birtualak egin zeinkez bakarrik ez jolasteko eta jokoaren entretenigarriagoa egi- teko. Kantidade egokian erabili ezker, ez dau kalterik egiten. Gainera zure gaitasuna ondo kudeatzen badozu gauza asko lortzera heldu zaitezke; horretaz bizitea lortu zeinke.



Bideojokoetan egiten diran lagunak sarri ezezagunak izaten dira. Jenteak hori aprobetxauz umeak bahitu, mehatxatu... Arazo larriak egoten dira. Behar dana

baino gehiago ibiltzen bazara, kaleko bizitzatik urrundu zaite- kez, lagunak galduz eta bakarrik geratuz. Osasunerako oso txarra da, gehienbat gaztaroan pantaila



baten aurrean orduak eta orduak emotea. Horrek gaixotasun larriak ekarri daitezke: bideojokoaren erabi- lerearen trastornoa.

Idea guztiai erreparatuz, iku- si daiteke arazo larriak ekarri daitezke denpora luzez jolasten emoten dogun denporea mu- rritu beharko geunke; arazo bat izan beharrean, entretenimendu bat izan daiten.

AGENDEA

ZEZEILAK 17 AREATZA

Abenduaren 18ra arte, Gorbeako Gurutzea Athletic Peñak antolatutako Argazki Lehiaketan parte hartzeko aukerea dago. Gaia: Athletic. Oinarriak www.athleticgorbea.com webgunean kontsultatu daitezke.

Hilaren 22ra arte, Gorbeako Gurutzea Athletic Peñak antolatutako martiaren 7 eta 8rako Valladolidera urtekerarako izen emotea Motxo tabernan.



18:30etik 19:30era, Aratusteetako zezeilaren 22ko bazkarirako eta martiaren 1eko Bilboko Euskaldunak izango dan *Festiband Eurovision* kontzerturako izen emotea udaletxeko 3. pisuan.

ARTEA

Bizitarako erremintak tailerren izena emoteko epea zabalik, hilaren 18ra arte. Mikel Deuna Jubilatua eta Pentsionistak alkarteak antolatuta. Izena udaletxean emon.

BEDIA

Martiaren 14ra arte, Kolazino Mendi Egunean izena emoteko epea zabalik dago *Sportmaniacs* webgunean. Mendi Martxea, Mendi Lasterketeta eta BTT Lasterketeta martiaren 21ean izango dira.

16:30etik 19:30era, hilaren 21era arte, martiaren 14an izango dan Oialume Zar sagardotegira urtekerarako izen emotea liburutegian.

IGORRE

Hilaren 19ra arte, mozerro desfilean parte hartzeako izena emon eta pendrivea musikeagaz eroan Kultur Etxera.

Hilaren 28ra arte, *Mendirik mendi* argazki erakusketa Kultur Etxean.

Martiaren 13an Kiñu Gaztetxean egingo dan Reincidentes eta Dientes de Luna taldeen kontzerturako sarreak salgai Axular Herriko Tabernan eta Kukuman.

ZEBERIO

Hilaren 23ko Austarri Mendi Taldearen urtekeran izena emoteko epea zabalik 20ra arte austarimendialdea@gmail.com helbidean edo 665 735 054 eta 656 415 597 telefonoetan.

ZEZEILAK 18 ZEANURI

19:00etan, *Iruña-Veleia, gizarte ustelaren ispilu?* Zergaitik ez dabe argitu gure? berbaldia Iruña-Veleia Argituko kideen eskutik. Eguzkiolan.

ZEZEILAK 19 BEDIA

19:00etan, Jaietako Batzordearen lehenengo batzarra udaletxean.

ZEZEILAK 20 LEMOA

10:00etan, JB Eguzkitza Meabe ikastetxeak

antolatuta, guraso eta ikasleentzako bitxi-burruntzia eskolan.

19:30ean, kontzentrazioa Plaza Gorrian. Zaldibar argitu orain! Zabor arriskutsuak Arratiara ekartzea ez da konponbidea lelopean.



ZEZEILAK 21 AREATZA

19:00etan, Jai Batzordeko batzarra udaletxean.

ARTEA

15:15ean, Inauteri ekitaldia eskolan; 16:30ean, txokolatea plazan; 19:00etan, disko festa Kultur Etxean.



DIMA

10:00etan, eskolatik herrira kalejireia; 16:30ean, edade guztietako jentearentzat tailer parte-hartzailea; 18:30ean, karaokea, playback-a eta erromeria Joxe Mendizabalen eskutik. Txokolatea eta jentek eroandako tostadak egongo dira.

IGORRE

17:00etan, Guraso Elkartearen eskutik jaialdia: zirku tailerra, Munduan berbena, txololotea eta umeentzako tailerrak Zatzaparrak taldearen eskutik.

19:30ean, Ganzabal Mendi Taldeak

AKKB Eguna eta kontzertua Euskalduna Jauregian

Areatzako Kirol, Kultur Batzordeak, AKKBk, bere eguna ospatuko dau hilaren 22an. Aurtengoa 8. urteurrena izango da. Horretarako atzenengo urteotan legez, eta Aratusteak dirala aprobetxauz, mozerrotuta, babajana egingo dabe hotelean.

Aurretik, 09:00etan urtenda, eta jateko gogoa bizteko, Lamino Kirol Klubak antolatuta, Upo mendi inguruan 3 orduko bueltatxo bat egingo dabe. Bazkalostean barriz, 17:00etan, triki poteoari ekingo deusie hotelik urtenda eta herriko taberna guztietan zehar.

Bilboko Udal Bandaren kontzertua

AKKBk kultura ekintzak antolatuten ditu eta hurrengo, martiaren 1ean, Bilboko Euskalduna Jauregiara urtekerak izango da. Bilboko Udal Musika Bandak *Festiband Eurovision* kontzertua joko dau eguerdiko 12:00etan. Eurovision jaialdian interpretatutako hainbat abesti dagoz programan, Iñaki Urkizu eta Jose A. Pinaren moldaketakaz. Anabel Condek ipiniko dau abotsa eta Serafin Zubirik pianoa eta abotsa.

AKKB Eguneko bazkarirako zein Euskaldunara joateko izen emotea, hilaren 17an, 18:30etik 19:30era egin daiteke udaletxeko 3. pisuan.

antolatuta, Mendi Amesgarriak. Mendi Tour 2020 saioa Lasarte Aretoan. *Ostatnia Góra*, *Elur goritan* eta *Allein* filmak.

LEMOA

JB Eguzkitza Meabea ikastetxeak antolatuta, Eskolako Mozerro festa. 10:00etan, gurasoak prestatutako txokolate jana; 11:30ean, mozerro festa. Gaia: Euskal Aratusteak. Kiroldegian.

ZEBERIO

17:00etan, Austarri Kultur Elkarteak antolatuta Xaibor frontoi ondoko aterpean; 18:30ean, txokolatea eta 19:00etan, mozerro lehiaketa.

ZEZEILAK 22 IGORRE

09:30ean, Jubiladuen alkarteak antolatutako mendi martxea. 09:30eko autobusa hartu Ubidera. Ubide-Eneabe-Saldropo-Undurraga-Zeanuri eta autobusean Igorrera.

12:00etan, mozerro poteoa Ezkina tabernatik hasita; 15:00etan, herri bazkaria Arratiko Zekorrek Rugby taldeak antolatuta; 17:00etan, mozerro desfilea Alaitasuna taldearen eskutik; 18:30ean, Jokaldi taldeagaz erromeria eta bitartean mozerroren sari banaketa.



22:00etan, zinea, 1917 Lasarte Aretoan

LEMOA

17:00etan, Udalak antolatuta, haurrentzako Inauteri festa. Puzgarriak, photocall-a, txokolatea, musika, jantzea... Kiroldegian.

19:30ean, Inauterietako poteo musikatua Kresala tabernatik hasita.

ZEANURI

Eskoleak antolatuta, Inauterietako bazkaria; 17:00etan, arpegiak margotutako tailerra; 18:00etan, Antxo eta Pantxa pailazoak.

ZEBERIO

10:00etan, Inausketa tailerra plazan.

ZEZEILAK 23 IGORRE

Jubiladuen alkarteak antolatutako Etxeramartxo.

17:00etan, zinea *Spy cat*; 19:30ean, 1917 Lasarte Aretoan.

ZEBERIO

08:00etan, plazan. Austarri Mendi taldearen urtekerak Zumarraga-Izazpi-Samiño-Azkoitia.



ZEZEILAK 24 ARANTZAZU

17:30ean, kalejireia mozerrotuta frontoitik

hasita; 18:00etan, Ogi Tostada Lehiaketa eta txokolatea plazan.

ARTEA

10:30ean, *Bizitarako erremintak* tailerra Ana Martin psikologoagaz. Mikel Deuna Jubilatua eta Pentsionistak alkarteak antolatuta.

11:00etatik 14:00etara, Inauteriak ospatu ludotekan.

BEDIA

17:00etatik 19:30era arte, Inauterietako tailerrak ludotekan.

LEMOA

11:00etatik 13:30etara, ludotekea zabalik.

ZEZEILAK 25 ARTEA

11:00etatik 14:00etara, Inauteriak ospatu ludotekan.

BEDIA

Inauteri ekitaldia. 17:00etatik 17:30era, mozerro desfilearako izen emotea eta photocall-a frontoian; 17:30ean, mozerro desfilea herrian; 18:30ean, disko festa Sorgintxo Dlagaz; 19:30ean, txokolatea. Frontoian.

LEMOA

11:00etatik 13:30era, ludotekea zabalik.

ZEZEILAK 26 IGORRE

Gazteria Zerbitzuak antolatuta, Valdezcaray-ra urtekerak eskietako.

LEMOA

11:00etatik 13:30etara, ludotekea zabalik.

ZEZEILAK 27 AREATZA

17:30ean, *Viejas y solas: herramientas feministas para afrontarlo* Carmen de la Mataren berbaldia. Udaletxeko Areto Nagusian.

ZEZEILAK 28 AREATZA

18:00etan, Ilgoran Arratiako Andren Jabekuntza Eskolako Morea eta Crisa edadeko andra feministentzako saioa. Udaletxeko Areto Nagusian.

19:00etan, Gaztetxearen gaineko batzar zabalda udaletxean.

ZEZEILAK 29 DIMA

19:00etan, batucAKKB tabernetatik; 21:00etan, Suger taldearen kontzertua Herriko Tabernan; 22:30ean, Lion Heart Baltzolan; 00:30ean, Cabaret Abaroa aretoan.

IGORRE

09:00etan, Igorreko Jubiladuen alkarteak Ipar Martxea. Aretoa-Ubetxaga-Urkuzu-Landais eta itzuli lehengo bidetik Aretora.

18:00etan, La Baldufa Teatre-ren *Safari* antzezlan Lasarte Aretoan.

22:00etan, zinea *Adu* Lasarte Aretoan.

MARTIAK 1 IGORRE

17:00etan, zinea *Las aventuras del Dr. Dolittle*; 19:30ean, *Adu* Lasarte Aretoan.

MARTIAK 2 ARTEA

10:30ean, *Bizitarako erremintak* tailerra Ana Martin psikologoagaz. Mikel Deuna Jubilatua eta Pentsionistak alkarteak antolatuta.

BEDIA

18:00etan, Euskaraldiaren gaineko berbaldia liburutegian.

16:30etik 19:30era, martiaren 19ra arte, Txiki-Txokorako, Udalekuearako, "Bediako Uda Gaztean" eta Cooperako Senegalera bidaian izena emoteko epea zabalik liburutegian.

AKIMIKO

Ka
i
l
o
R
e
n



IRAGARKI LABURRAK

SALDU

SALGAI

Sueteko beheko parterako egurrezko armairua eta estalga, labea eta bitroagaz, merke saltzean dodaz. Txoko baterako aproposak dira. Deitu 657 777 542 zenbakira.

TREKKING BIZIKLETEA SALGAI

Kreidler (RT Raise) markakoa, taila handikoa, barri-barria; zikloturismoa egiteko beren-beregikoa. Prezio onean. Otzarea eta atzeko boltsak oparizat. Interesdunak deitu 685 711 598 telefonora.

DANERIK

PARTZELEA ESKAINTZEN DOT

Lemoako Ajuriagerra kalean, kotxea aparketako partzela bat eskaintzen dot alokairuan. Interesdunak deitu 627 087 495 telefonora.

IRAKASLE BILA

2019-2020 ikasturterako, DBH 4. mailako Fisika eta Kimikako klase partikularrak emoteko persona bat behar da. Interesdunak deitu 620 607 952 telefonora.

ZUME BILA

Zume bizi zein lehor bila gabiz; erosi ala trukea egiteko aukeran. Landan izan ezker, gu geu mozteko prest gagoz. Telefonoa: 655 709 771.

KLASEAK EMOTEN DIRA

Fisika, Kimika, Matematika eta Biologiako klase partikularrak emoten dira Igorren. Interesdunak deitu 610 682 961 telefonora.

JENTE BILA

Zaparrada Batukada Taldeko kide izan gura dozu? Animau! Zure zain gagoz! Ipini gugaz hartu-emonetan, zaparradabatukada@gmail.com emailen, Instagramen [@zaparrada_batukada](https://www.instagram.com/zaparrada_batukada) helbidean edo [@zaparrada](https://www.facebook.com/zaparrada_batukada) helbidean Facebook-en.

Zezer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Safari antzezlanerako.

Josean Bengoetxea (Lemoa)
Beinat Anzola (Igorre)



2

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera 1917 filma ikusteko.

Montse Bustinza (Areatza)
Jasone Aldekoa (Zeberio)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 17 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | www.begitu.org | begitu@topagunea.com

umean medu
sem
e-ig
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • semedu@hotmail.com

Kepa Intxausti
TAXI ZERRITZUA
609421222
IGORRE

Orrie
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 2.
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa.: 94 673 64 25

begitu
anaitz aldizkaria

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendaketa, 3. 48530 LEMOIA, Bizkaia
Tel. 609 482 530 • 609 206 717

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tf. 94-673-70-87
Tf. 609-79-49-54

AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Gara, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

Pinturas Anatia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

NAIARA HORTZ KLINIKA
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko

94 631 73 14 eta 649 979 112

begitu@topagunea.com

begitu
arratia ubide zeberio

Autokontsumo Fotovoltaikoa



AURREKONTUA ESKATU

Eguzki panelak jarri eta aurreztu %50 zure faktura elektrikoan

Arratian jadanik egindako proiektuak bisitatzeko aukera

PROIEKTUAREN KUDEAKETA OSOA
Memoria teknikoa, osagaien instalazioa eta legeztapena

944 567 368
www.ekoleds.com
Bedia | Bizkaia
info@ekoleds.com

ekoLEDs
INST. ELECTRICAS

begitu
arratia ubide zeberio

BAIETZ 50 LAGUN BARRI EGIN!

**2020AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN!
BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!**

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako **2020an egin zaitetz Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Aurreko hamabostaldiko irabazlea Joseba Bernaola izan da.

Hori egiteagaitik **Areatzako Bainuetxean** lagun birezko zirkuitu termala + buffet menua zozketatuko dogu hurrengo hamabostaldian **Begitu-lagun** barrien artean.



Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____
Helbidea: _____
Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____
Kontu korrontearen zenbakia: ES _____
Aukeratu urteko kuotea: 35€ 55€ 75€

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@topagunea.com helbidera.

*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.